

Aske izateko galderak

Nola irakurriko dute Joxe Azurmendi biharko euskaldunek? Inork irakurriko al du *Espainolak eta euskaldunak* euskaraz? Erdaraz? Lehen-dakariren batek aipatuko ote du Zegamako filosofoa bere kargu-har-tzean? Hizpide izango ote dute Euskaltzaindiko urgazle-gaiek euskal saiakerari egin zion ekarpen linguistiko eta estilistikoa? Erruz egingo ote dira tesiak bekaz ondo hornituak? Itzalik izango ote du Joxe Azur-mendi Katedrak EHUtik kanpo? Akademiatik kanpo? Galdera baten gaia izango ote da filosofoa EITBko erdal telebistako lehiaketaren ba-tean? Eta, hala bada, erantzun zuzena emango ote du lehiakideak?

Zenbat plaza, institutu eta kultura-etxe bataiatuko dituzte Joxe Azur-mendi izenaz? Barandiaran edo Aresti bezain ospatua izango ote da, edo beste Txillardegia bat? Zein gaztetxeri jarriko diote Joxe Azurmen-di izena? Zeinetan landuko dituzte klase eta nazio aferaz idatzi zitue-nak? Gogoratuko ote dute batxilergoan etikaz esan zituenak, edo soilik esanarazi nahi zizkietenak, edo deus ere ez?

Jarraituko dute bazter hauetako intelektualek Erromantizismoa eta Ilustrazioa kontrajartzen? Errepikatuko digute zein kaltegarria izan zen Herder? Eta *Volksgeist* kontzeptu gaizki ulertua, osteria ere, eslei-tuko diote Herderri, eta, bidenabar, euskaltasun oro zein esentzialista den gaztigatuko digute errukior bezain irrikor? Gogoratuko digute madrildar, paristar edo newyorktar ahots kosmopolitek euskalduna ezin dela izan, ez izanez, ez izenez, unibertsala? Edota, zibilizatu behar dugula geure burua erdal kolonizazio ilustratuaz? Jarraituko ote dute, lotsa barik, halako tranpa ergelak jartzen? Jarraituko ote dugu haietan zabarkeria hutsagatik jausten?

Aurkituko ote dute euskal gazteek euren samin eta suminetarako la-guntzarik Joxeren orrietan barna? Krisiak eta gazteen eroa nola uz-tartzen eta nahaspilatzen diren ulertzeko argirik? Lehengo pusketa-

tik *herri* den zerbait egiteko inspiraziorik? Gai izango dira, gai izango gara, bizi-erronketan Joxek erakutsi zuen kementa, estiloa, metodoa geureganatzen? Jakingo ote dugu milaka orri horiei esanahi eta bizi-nahi berriak ematen?

Demokratak eta biolentoak, unibertsalak eta partikularrak, norbera eta taldea... Zenbat antinomia faltsuri egin zien aurre filosofo nekazekin? «Diairesi manikeoak» deitu zien behin. Zenbat gaingitu ditugu eginetan? Ardura hori izan zuen pizgarri eta gidari. Printzipio absolutuen eta dogma zaharberrituen kontra aritu eta aritu ibili zen euskal filosofo «postfundazionala»:

Orain, balioen oraingo galera eta miseria moralaren erruduna erlatibismo posmodernoa omen dela entzun behar izaten dut. Eta diskurtsoa pixka bat demokratiko eta ilustratu gisan jantzita bai, baina balio absolutuen nostalgia dagoela nabaritzen da, ziurtasun absolutuena, egia ezbaigabekoa.

2010eko berbak, zaharrak berri. Egia krisiak jota dago, egia absolutuen nostalgia eta tentazioa gero eta handiagoa egiten zaigu, dogmatismo hertsia eta zinismo sinesgabearen arteko amaraunetik irteera gero eta zailagoa egiten digutelako. Korapiloaren bestaldean Joxe dugu, langile eta artatsu, eraman handikoa eta eman oparokoa; irriño egiatiaz irekitzen digu aterabide bat, beharbada konfiantza larregi duelako zertan eta herria eta askatasuna beti izango direlakoan eragile, elkargune, bizi-indar. Hori diosku behin eta berriro jarri zituen galderetan, entseatu zituen erantzunetan.

Lurrera, lurraldera eta lupetzara behin eta berriro jaitsarazi zuen pentsamendua: herri-erroei atxiki, bizidun gorputzen zainei lotu, abere-tasunaren sentierari oratu, hizkuntzaren gogo sortzaileari eutsi, eta, horrela finkaturik, pentsamendu aske eta askatzaileaz erditu zen. Askatasuna da Joxeri eskertu nahi diodan sukar eta aiherra. Herrian, balio materializatueta eta harreman moldeetan gauzatu behar den askatasuna, hain zuzen. Bide egiteko arte bat erakutsi zigun: itaun berriak jarritz, dikotomia dogmatikoak eraitsiz, jakintzan beldurrik gabe xerkatzen. Agian ez dugu erantzunik lortuko, baina, hala ere, aske izateko bidean jardungo dugu, Joxeren arrasto bizigarritik, Joxe bidelagun dugula. Agurrik ez, beraz. Eskerrak, ordea, kontaezin.